



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urtarrilaren 31

11. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter ditzan entitate finantzarioekin dituen harreman operatiboak. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat formula bultzatuz ditzan, errealtatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberritze obra bateko zati diruz lagundua. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko abenduaren 31 baino lehen araudia egoki dezan gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definizioaren eta sailkapenaren arabera. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikorako eraikin berriaren obrak has ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (13. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruñeko iparraldean. Hezkuntza Batzordeak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa. Akats zuzenketa (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lantaldea, aztertzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta iruzurraren aurkako borrokarako alternatibak. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2012ko azaroaren 16ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluari atal bat gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

Bat bis atala gehitzen da.

Bat bis atala. 24.1. artikuluari letra bat gehitzen zaio; h) letra, hain zuzen ere:

“h) Hartzaila bakoitzeko milioi bat eurotik gorako gastuak, zergaldi bat baino gehiagotan ordainduta ere, lan harremanaren –arrunta edo berezia– iraungitzetik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 14.2 c) artikuluan aipatzen den merkataritzako harremanetik edo horietatik bietatik eratorriak badira. Ondorio horietarako, kontuan hartuko dira sozietate talde bereko kide diren beste entitate batzuek ordaindutako zenbatekoak, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.”

Zioak: Xedea da sozietateen gaineko zergan mugak jartzea kopuru handiko zenbait gasturen kengarritasunari, gastu horiek entitateko langilean lan harremana iraungitzetik edo administratzaileen

eta administrazio kontseilueta kideen merkataritza harremana iraungitzetik eratorritakoak badira.

Horrekin lotuta, milioi bat eurotik gorako gastuak, langile baten lan harremana iraungitzetik –lan harreman arrunta edo izaera bereziko lan harremana izan daiteke– edota entitatearen administratzaileekiko merkataritza harremana iraungitzetik eratorriak badira, ez dira kengarriak izanen.

Zehazten da kontuan hartu behar direla, kasua bada, kontzeptu horiengatik zergaldi batean baino gehiagotan ordaindutako gastuak, bai eta aldi berean lan harremanak eta merkataritza harremanak iraungitzetik eratorritako gastuak. Halaber, kontuan hartu beharko dira Merkataritza Kodeko 42. artikuluari jarraikiz merkataritza talde bat osatzen duten entitate guztiek eginiko ordainketak.

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari atal bat, 2 bis atala, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2 bis. 30.4.a) artikulua.

a) Ordaintzeko betebeharraren duenaren ondasun eta eskubideak ezkatzea edo eskualdatzea eragiten duten edota horretarako laguntza ematen dutenak, tributu administrazioaren jarduna eragotzeko xedez. Espresuki sartzen dira epigrafe honetan produktu edo zerbitzu bat erosten duten pertsona fisikoak, balio erantsiaren zerga ordaintzen ez badute.”

Zioak: Komenigarria da ikusaraztea dagokion BEZa ordaindu gabe produkturen bat erosten duten pertsona guztiek duten legezko erantzukizuna.

3. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hona laugarren idatz-zatiaren testua:

“Erantzukizun honen ondorioetarako, autoliki-dazioak diru-sarrerarik egin gabe aurkeztutzat joko dira, bigarren idatz-zatian aipatu urte naturaleko diru-sarreretatik guztira ateratzen den zenbatekoa ez denean handiagoa sartu beharreko kuota autoliki-datuaren baturaren %50 baino, nahiz diru-sarrera partzialak egon aurkeztu diren autoliki-dazio guztietan edo batzuetan.”

Zioak: Xedea da betekizuna gogortzea, zergak saihesteko modu hori zailago egite aldera.

4. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“..aurreko bi urteetan ondareagatik jasotako” dioen tokian “aurreko lau urteetan ondareagatik jasotako” esan behar du.

Zioak: Bi urtetik laura luzatzea epea, bi urtekoa laburregia dela iruditzen baitzaigu.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“2. Desegin eta likidatutako entitateen edo sozietateen kasuan, horietan legeak bazkideen ondare-erantzukizuna mugatzen badu, haien bete gabeko zerga betebeharrak bazkideei edo kapitaleko partaideei eskualdatuko zaizkie; haien erantzule solidario izanen dira, esleitu zaien likidazio kuotaren eta desegin aurreko bost urteetan ondareagatik jasotako balioaren mugaraino, betebeharrorien erantzule izan beharko lukeen sozietate-ondarea gutxitzen zutela, 30.4.a) artikuluan aurreikusitakoa galarazi gabe.

Desegin eta likidatutako entitateen edo sozietateen kasuan, horietan legeak ez badu mugatzen bazkideen ondare-erantzukizuna, haien bete gabeko zerga betebeharrak bazkideei eskualdatuko zaizkie osorik; haien erantzule solidario izanen dira.”

Zioak: Alde batetik, legeak bazkideen ondare-erantzukizuna mugatzen ez duen sozietateen kasua argitzen da, kasu horretan xedapena aplikatu ez dadin. Bestetik, bi urteko epea ez zaigu nahikoa iruditzen; hori dela eta, bost urtera luzatzen da sozietatearen balizko ondare-hustuketa gertatu ahalko litzatekeen epea, iruzur mota hori irmotasun handiagoz pertsegitze aldera.

6. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA
JAUNEK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari atal bat, sei bis atala, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Seigarrena bis. 52.3. artikulua.

“Epez kanpo eta aurretik errekerimendurik egin gabe aurkeztutako aitorpen-likidazioei edo autoliki-dazioei dagozkien sarrerek eta epez kanpo eta aurretik errekerimendurik egin gabe aurkeztutako aitorpenen ondoriozko likidazioek honako errekar-gu hauek izanen dituzte:

a) Aurkezteko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko zazpi eguneko aldi, ehuneko 2ko errekar-gua ezarriko da. Berandutza interesa eta bestela eska zitezkeen zehapenak ez dira aplikatuko.

b) Aipatu zazpi egunak iraganik, baina aurkezteko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hiru hilabete pasatu baino lehen, ehuneko 5eko errekar-gua ezarriko da. Berandutza interesa eta bestela eska zitezkeen zehapenak ez dira aplikatuko.

c) Aipatu hiru hilabeteak iraganik, baina aurkezteko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hamabi hilabete pasatu baino lehen, ehuneko 10eko errekar-gua ezarriko da. Berandutza interesa eta bestela eska zitezkeen zehapenak ez dira aplikatuko.

d) Aurkezteko eta diru-sarrera egiteko borondatezko epea bukatu ondoko hamabi hilabete pasatuta, errekar-gua 100ko 20koa izanen da, eta, ondorioz, bazter geldituko dira beste kasuren batean jarriko ziratekeen zehapenak. Honelako kasuetan berandutza interesak eskatuko dira, hamabi hilabeteko epea bukatzen denetik diru-sarrera egin bitarteko denboran sortuak.

e) Ehuneko 10eko errekar-gu bat aplikatuko da, berandutza interesak eta beste kasuren batean jarriko ziratekeen zehapenak bazter utzita. Zerga

arloko arau-hauste larrien zehapenen zenbatekoa ehuneko 30 murriztuko da, subjektu arau-hausleak edo, kasua bada, erantzuleak bere adostasuna adierazten badu egiten zaizkion erregularizazio eta zehapen proposamenekin.

Errekargu horiek ordainarazpen aldiko errekar-guekin bateragarriak izanen dira, baldin eta tributu ordaintzera beharturik daudenek ez badute dirua sartzen aitorten-likidazioa edo epetik kanpo-ko autolikidazioa aurkeztearekin batera.

Idatz-zati honetan ezarritako errekar-guak aplikatzekoak izan daitezten, epez kanpo aurkeztutako aitorten-likidazioek edo autolikidazioek berariaz identifikatu behar dute zein zergaldiri dagozkion, eta zergaldi horri buruzko datuak bakarrik eduki beharko dituzte”.

Zioak: 52.3 artikuluar a) letra bat gehitzen zaio, zazpi egun baino gutxiagoko atzerapenaz betetzen dutenentzako errekar-guak leuntze aldera.

7. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluar beste idatz-zati bat, hamazazpigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hamazazpi. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 55. artikulua aldatzea. Hona testua:

“Bost urte igarota balio gabe geratuko dira ondoko eskubide eta akzioak:

- a) Administrazioak bidezkoa den likidazioaren bidez tributu-zorra zehazteko duen eskubidea.
- b) Likidatutako tributu-zorren ordainketa eskatzeko akzioa.
- c) Tributu-zehapenak ezartzeko akzioa.
- d) Okerreko diru-sarrerak itzultzeko eskubidea.

Zioak: Iruzur fiskalaren aurkako egiazko borroka eskatzen du Tributu Administrazioak tresna egokiz hornitzea, eta horietako bat da preskripzio-epea luzatzea; izan ere, okerra izan zen bere garaian epe hori murriztea, are gehiago kontuan hartzen badugu zigor arloan preskripzio-epeak bost urtekoa izaten jarraitzen duela.

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluar atal bat, hamaika bis atala, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Hamaikagarrena bis. 71.1.b) artikulua.

“Tributu Administrazioaren jarduketan aurrean erresistentzia, aitzakiak edo ezezkoa agertzea edota haren ikerketa-jarduera oztopatzea.

Inguruabar hori gertatzen denean arau-hauste larri bat egin denean, zehapenaren portzentajea ehuneko 20tik ehuneko 60ra bitartean handituko da.

Inguruabar hori gertatzen denean arau-hauste soil bat egin denean, zehapenaren portzentajea handituko da gehieneko zenbatekoaren ehuneko 20tik ehuneko 40ra bitartean.”

Zioak: Zehapena gogortzea Administrazioaren jarduketan aurrean erresistentzia, aitzakiak edo ezezkoa agertzen denean edota haren ikerketa-jarduera oztopatzen denean.

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluar atal bat, hamaika ter atala, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Hamaikagarrena ter. 71.3. artikulua.

“Zerga arloko arau-hauste larrien zehapenen zenbatekoa ehuneko 30 murriztuko da, subjektu arau-hausleak edo, kasua bada, erantzuleak bere adostasuna adierazten badu egiten zaizkion erregularizazio eta zehapen proposamenekin.”

Zioak: Egungo murrizketa, ehuneko 40koa, gehiegizkoa da.

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluar beste idatz-zati bat, hemezortzigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hemezortzi. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 76.3. artikulua aldatzea. Hona testua:

“3. Zerga arloko arau-hauste larriari dagokion kalte ekonomikoaren zenbatekoak ingresatu beharreko zenbatekoen ehuneko 50 baino gehiago egiten duenean eta 5.000.000 pezetatik [30.050,61 euro] gorakoa bada, eta, gainera, foru lege honetako 71.1 b) edo c) letretan aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen bada, subjektu arauhausleei ezarri beharreko zehapenak berekin ekarriko ditu ondokoak:

a) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak esku-ratzeko aukera eta zerga arloko hobari eta pizgarriez gozatzeko eskubidea galtzea, hiru urtez, gutxienez, eta bost urtez, gehienez ere.

b) Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bestelako erakunde publikoekin kontratuak egiteko debekua, hiru urtez, gutxienez, eta bost urtez, gehienez ere.”

Zioak: Xedapen honetan aurreikusitako zehapenak aukerakoak izatetik derrigorrezkoak izatera igarotzen dira, eta gutxienezko epea ezartzen zaie. Horrela, iruzur egitearen kostua nabarmen gogortzen da, eta, halaber, azpimarratzen da iruzurraren elkartasunik eza; izan ere, iruzur egiten duenak gizarteari egiten dio, eta ezin du espero zergak ordaintzen dituztenen jokamolde lege-betetzailetik eratorritako baliabide publikoek baliatzea, denbora batean bederen.

11. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuko lehenengo artikuluko hamabigarren idatz-zatiaren lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

Hamabi. 118. artikulua.

“118. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Diru-bilketarako eskuduna izanik, zorren kobrantza segurtatzeko, Administrazioak behin-behineko kautelazko neurriak hartu beharko ditu honako honen arrazoizko zantzuak daudenean: hala egin ezean kobrantza ezinezkoa izan litekeela edo kobratzeko zailtasun larriak leudekeela.

Zioak: “Ahal” aditza erabili beharrean, “behar” aditza erabiltzen da. Ezin da inolako zalantzarik egon arrazoizko zantzuak izanez gero kautelazko neurriak hartzearen inguruan.

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.14. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“5. Zerga administrazioak sozietate baten ondasun higigarriak eta higiezinak erabiltzeko debekua erabakitzen ahalko du, diru-bilketaren prozedurak haren aurka egin beharrik gabe, tributudunari haren akzioak edo partaidetzak enbargatu zaizkionean eta hark duenean higigarri edo higiezin horien sozietate titularraren gaineko kontrol efektiboa, erabatekoa edo partziala, zuzena edo zeharkakoa...”

Zioak: Ondasun higigarriak sartzek xedapenaren zentzua osatzen du.

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluko hamaseigarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa. Aipatu idatz-zatiak xedapen gehigarri bat, hemezortzigarrena, gehitzen zuen. “Atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharra.”

Zioak: Hamaseigarren idatz-zati hori kentzeko arrazoia da aipatu hemezortzigarren xedapen gehigarria, atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharraren gainekoa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legean sartu izana.

Zehazki, 21/2012 Foru Legearen bigarren artikuluko zortzigarren idatz-zatian jasotzen da aipatu hemezortzigarren xedapen gehigarria.

14. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1.16.1. c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“c) Atzerrian diren ondasun higigarri eta higiezinei eta ondasun higigarrien eta higiezinaren gaineko eskubideei buruzko informazioa, haien titularrak direlako.”

Zioak: Ez du zentzurik informatzeko betebeharra higiezinetara bakarrik mugatzeak.

15. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1.16.2. c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

“c) Atzerrian diren ondasun higieziei eta ondasun higigarrien eta higiezinaren gaineko eskubideei buruz informatu beharra betetzen ez den kasuan, 5.000 euroko isun finkoa izanen da zehapena, aitorpenean agertu beharreko ondasun higigarri edo higiezin bati berari edo ondasun higigarri edo higiezin baten gaineko eskubide bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, baita modu ez osoan, zehaztu gabe edo faltsututa agertuta ere; gutxienez, 10.000 euro izanen dira.

Zehapena 100 eurokoa izanen da ondasun higigarri edo higiezin bati berari edo ondasun higigarri edo higiezin baten gaineko eskubide bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, eta gutxienez ere 1.500 eurokoa, aitorpena epetik kanpo aurkeztu bada tributu administrazioak errekerimendurik egin gabe. Modu berean, aitorpena baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoez bestelako moduz aurkeztea zehatuko da, baliabide horien bitartez egiteko betebeharra dagoenean.”

Zioak: Ez du zentzurik informatzeko betebeharra higiezinetara bakarrik mugatzeak.

16. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Foru Lege proiektuaren laugarren artikuluari beste atal bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa.

Laugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

Lau. Berrogeita laugarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Berrogeita laugarren xedapen iragankorra. Berrinbertsioagatiko salbuespenari dagokionez, inbertsioa gauzatzeko epea luzatzea.

36. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, berrinbertsioa egiteko epea 2013an zehar amaitzen den kasuetan, subjektu pasiboek berrinbertsio hori 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzatu ahalko dute.

Zioak: Zuzenketa honen bidez konpondu nahi da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 36. artikuluan agertzen diren berrinbertsiorako zenbait epetan atzemandako disfunczio bat.

Aipatu 36. artikulua berrinbertsioagatiko salbuespena arautzen du, halako moduz non ibilgetu materialaren edo ibilgetu ukiezinaren elementu baten kostu bidezko eskualdaketatik lorturiko errenta, elementu hori jarduerari atxikirik badago, salbuespena egon da, baldin eta eskualdaketa horren zenbatekoa izaera bereko eta berdina atxikia den edozein elementutan berrinbertitzen bada, ondare-elementua eskualdatu eta ondorengo hiru urteen arteko epean inbertitu ere. Epe hori datatik datara zenbatzen da.

Egun bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, enpresek kredituaren murrizketa handia jasan dute, eta zailtasun esanguratsuak dituzte berrinbertsioa gauzatzeko. Kreditu arazo horien eraginez (eta horren ondoriozko berrinbertsioa gauzatu ahal izateko izaten diren zailtasunak) enpresek berrinbertsioagatiko salbuespenaren pizgarri fiskala galtzea saiheste aldera, azken urteotan bi xedapen iragankor gehitu zaizkio Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeari (ikus 348 eta 428. xedapen iragankorrak), 2011n edo 2012an amaitzen zen inbertsioak egiteko epea 2013 urte osora luzatze aldera. Hala ere, disfunczio bat atzeman dugu; izan ere, 36. artikuluko berrinbertsioagatiko salbuespena biltzeko, 2010ean eginiko eskualdaketak 2013an berrinbertitu behar dira, baina epea datatik datara zenbatuta, halako moduz non, eskualdaketa egin bazen, esaterako, 2010eko otsailean, berrinbertsioa 2013ko otsailean egin behar den. Kontuan hartu behar da berrinbertsio horiek ezin direla 2013 osoan zehar gauzatu.

Enpresa horiei kalterik ez egite aldera eta 2008an edo 2009an ondasunak eskualdatu zituzten enpresen egoera berean jartze aldera, xedapen iragankor hau sartu da. Horren bidez, xedatzen da berrinbertsioa egiteko epea 2013an amaitzen den kasuetan, subjektu pasiboek berrinbertsio hori 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzatu ahalko dutela; hau da, 2013 osoan zehar.

17. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa. Iruzzurren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko Lan Batzorde Iraunkorra.

Lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borrokaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko Lan Batzorde Iraunkorra eratuko da. Batzorde hori osatuko dute Nafarroako Gobernuko ordezkariak batek,

parlamentu-talde bakoitzeko ordezkari batek eta Nafarroan ordezkari handiena duten gutxienez lau sindikatu etako ordezkariak, eta haren xedea izanen da arlo horretako jarduketak aztertzea, proposamenak egitea eta iruzur fiskalaren aurka borroka egiteko diseinatzen diren jarduketa planen eta neurrien jarraipena egitea.

Aipatu Batzorde Iraunkorra hilabetean behin bilduko da, gutxienez.

Zioak: Iruzuraren aurkako borroka lehentasuneko gaia izan behar du erakunde eta administrazio publikoentzat, eta beharrezkoa da berariazko organo bat izatea eztabaidarako eta azterketak eta proposamenak egiteko.

18. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTUA

Beste artikulua bat, seigarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Seigarren artikulua. Beharrezkoa den gehien-goia amnistia fiskala dakarten neurriak onesteko.

Aitortu gabeko errentak edo ondareak azalertzeko xedearekin, denbora labur batez haiei loturiko kostu fiskala ezabatu edo murrizten duen edozein neurri onesteko, beharrezkoa izanen da Parlamentuan emandako bozen 2/3 aldekoak izatea.”

Zioak: Amnistia fiskalak lortu nahi den kultur aldaketaren aurkako balioak dakartza berekin.

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarri bakarra. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzea.

“3. 2012ko abenduaren 28an ixten den lehen balantzean jasotzen diren elementu eguneratzeko moduko gainean eguneratuko dira balioak, edo 2012ko abenduaren 31n erregistro liburuetan jasotzen diren gainean, pertsona fisikoen errentaren gaineke zergaren subjektu pasiboaren kasuan, zerga

horrek behartzen baditu erregistro liburu horiek eramatera, betiere zerga aldetik guztiz amortizaturik ez badaude. Horretarako, izaera horrekin egin behar izan ziren amortizazioak hartuko dira gutxienez.”

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legearen lehenengo xedapen gehigarriak balantzeen eguneratze bat jasotzen du, borondatez egingen dena. Balantzeen balioen aipatu eguneratzearen xedea da enpresei zenbait abantaila ematea, haien ondare-egoeraren hobekuntzari, haien kostuen ezagutza hobeari eta haien etekina modu doiagoan zehazteari dagokionez.

Horretaz gain, lagungarria izanen da enpresek kanpoko finantzaketa lor dezaten, eta berarekin ekarriko duen zama fiskala ez da handiegia izanen, baina, aldiz, Foru Komunitatearen zerga-bilketa areagotuko du, eta une honetan hori oso beharrezkoa da.

Aipatu 21/2012 Foru Legea abenduaren 31n argitaratu zenez Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2013ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean, haren azken xedapenetan bigarrenari jarraikiz: “Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.”

Indarrean sartze horrek arazo garrantzitsu bat sortzen du balioak eguneratzeko eragiketari dagozkien aurreikuspenetan; izan ere, lehenengo xedapen gehigarriko 3. idatz-zatian, sozietateen gaineke zergaren menpeko pertsona juridikoei dagokienez, ondokoa ezartzen da: “Xedapen honek indarra hartu ondoan ixten den lehen balantzean jasotzen diren elementu eguneratzeko moduko gainean eguneratuko dira balioak.” Hau da, eguneratzea egingen da 2013ko urtarrilaren 1aren ondoren ixten den lehen balantzean, hau da, kasu gehienetan, 2013ko abenduaren 31n ixten den balantzean jasotzen diren elementuen gainean. Horrek esan nahi du urtebetez atzeratzen dela balantzeetako balioen eguneratzea, eta egoera hori ez zegoen inolaz ere aurreikusita foru legearen espirituan; aldiz, azaldu den moduan, foru legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean hain berandu argitaratu izanaren ondorioz sortu da.

Balantzeetako balioen eguneratzea aurreikusitako datetan izate aldera, hau da, 2012ari dagozkion balantzeetan, aipatu xedapen gehigarriaren hirugarren idatz-zatiko lehen lerrokada aldatzen da, zehazte aldera, xedapenak pertsona fisikoei dagokienez ezartzen duenari jarraikiz, balioen eguneratzea egingen dela 2012ko abenduaren

28aren ondotik ixten den lehen balantzean jasozten diren elementu eguneratzeko moduko gainean.

20. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, lehenengo, gehitzeko zuzenketa.

“Lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, iruzur fiskalaren aurkako borrokaren arloko helburu guztiak konpentsatze aldera, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu 2013a amaitzean Nafarroako Gobernuak izan ditzan foru lege hau onesten den unean dauden ikuskarien kopurua halako bi.”

Zioak: Administrazioak bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak jarri behar ditu.

21. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa.

“Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako ekonomia ezkutuari buruzko adierazleen gaineko txosten bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, sektoreka xehakatur. Aipatu txostena urtero eginen da eta Nafarroako Parlamentura igorriko, eta, hala, Nafarroako ekonomia ezkutuariaren bilakaeraren jarraipena egin ahalko da.”

Zioak: Erakunde guztien betebeharra da laguntza ematea ezkutuko ekonomiaren adierazleak erabat murriztu daitezen. Eta, horretarako, funtsezkoa da unean uneko egoerari buruzko datuak izatea.

22. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, hezkuntza-, informazio-

eta komunikazio-estrategia bat garatuko du, herritarrak kontzientziatu eta erantzukizunean eta tributu-betebeharren betetzean hezteko.

Estrategia horretan zehazturiko helburuen betetze-maila urtero baloratu eta berrikusiko da, eta, horretarako, dagokion jarraipen txostena aurkeztuko da Nafarroako Parlamentuan.”

Zioak: Iruzur fiskalaren aurka borroka egiteko beharrezkoak diren tresnak izateaz gain, administrazio publikoek kontzientziazioa eta herritarrak zerga-konpromisoekiko erantzukizunean hezea sustatu behar dute, gizarte justu, orekatu eta integratu bati euste aldera.

23. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat, bakarra, gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta hiru hilabeteko epean, iruzur fiskalaren aurka borroka egiteko plan berri bat aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan. Plan horretan estrategia bat finkatuko da eta helburu doiak zehaztuko dira, neurtzeko eta baloratzeko modukoak, eta plan horretara aurrekoetara bideratu ziren aurrekontu-baliabideen bikoitza bideratuko da.”

Zioak: Administrazio publikoek biderkatu egin behar dituzte orain arte izandako zigorgabetasuntarteak zuzentzera bideratutako ahaleginak eta baliabideak.

24. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta lau hilabeteko epean, lan eskaintza publikoko deialdi bat eginen du, halako moduz non Nafarroako Foru Ogasuneko ikuskarien plantilla bikoiztea ahalbidetuko baita.”

Zioak: Ezkutuko ekonomiaren eta iruzur fiskalaren aurkako borrokaren eraginkortasuna hobetze aldera, beharrezkoa da tributu ikuskapenerako baliabide pertsonalak areagotzea.

25. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria. Bat. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean, azterlan oso eta sistematiko bat aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan, ezkutuko ekonomiaren eta iruzur fiskalaren hedapena eta zenbaterainokoa aztertuko duena, jarduketa mekanismoen, errenta moten eta zerga moten arabera xehakaturata.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatzen den azterlana aurkeztu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak iruzur fiskalaren aurkako lau urterako plana edo estrategia prestatu eta aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan. Plan hori urtero eguneratuko da, une bakoitzean dagoen informazioaren arabera, eta ondoko alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Helburu zehatz eta neurgarriak, taxututako estrategiaren ebaluazio eraginkor bati ekin ahal izateko.

b) Helburu horiek betetzeko, iruzur fiskala detektatzea eta egiazki pertsegitzea sustatzeko eta jarduketak benetan gauzatzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta materialak.

c) Ezkutuko ekonomiaren gaineko berariazko neurriak.

d) Kenkarien, salbuespenen, diru-laguntzen eta bestelako hobari fiskalen aplikazioaren jarraipena egiteko eta egiazkoa eta zuzena dela kontrolatzeko programa bat.

e) Etengabeko jarraipena eta lortutako emaitzen urteko ebaluazioa, lortu nahi diren helburuekin alderatuta, strategiaren eraginkortasuna eta errentagarritasun ekonomiko-soziala ezartze aldera. Ebaluazio hori ere Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da.”

Zioak: Foru lege proiektuan jasotako neurriak neurri partzialak dira, baliagarriak izan daitezkeenak, baina ez dira egiazki eraginkorrak izanen haiekin batera ez bada abian jartzen iruzur fiskala detektatu eta pertsegitzeko estrategia ausart eta agresibo bat. Horretarako, lehenbizi, ezkutuko ekonomiaren zenbaterainokoa balioetsi behar da, eta, ondoren, neurri zehatzak ezarri, iruzur eta zerga motaren arabera. Era berean, neurri horien eraginkortasuna ezartze aldera, beharrezkoa da lortu beharreko helburu zehatzak finkatzea.

Gure ustez, horretarako bide egokiena da lau urteko planak prestatzea eta urtero eguneratzea.

Arazoaren garrantzia dela-eta, komenigarria da Parlamentuak alderdi horiek guztiak ezagutzea.

26. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA**
JAUNEK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

Lehen xedapen iragankorra. PFEZaren zenbatespen objektiboaren araubidea eta BEZaren araubide sinplifikatua 2013rako.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren estimazio objektiboko araubidea eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi sinplifikatua ez zaie aplikatuko 2012an araubide horien menpe egon ez diren jardueri.

2. Halaber, ez dira aplikatuko ondoko egoeretan:

a) Urtarrilaren 30eko 10/2012 Foru Aginduko 3.1.1.a) artikuluan jasotako jardueri, betiere dirusarrerren bolumena, aipatu foru aginduan ezarritakoari jarraikiz zehaztua, 200.000 eurotik gorakoa bada.

b) Gainerako jarduera posibleei, aipatu dirusarrerren bolumena 100.000 eurotik gorakoa bada.

c) Pertsona enplegatuen kopurua, foru agindu horren arabera kalkulatua, 2tik gorakoa bada.

Zioak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren estimazio objektiboko araubidearen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide sinplifikatuaren aplikazio-esparruak murriztea, azterketa sakon bat egin aurretik, betiere, Estatuko ogasun ikuskarien elkarte profesionalen gomendioei jarraikiz.

27. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA**
JAUNEK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen iragankorra. Tributu Administrazioan inbertituriko baliabideak, BPGaren arabera.

2013an eta 2014an, Gobernuak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, ziurtatze aldera 2015ean Nafarroako Tributu Administrazioan inberturiko baliabideak erkidegoaren BPGaren ehuneko 0,25 izanen direla, gutxienez.

Zioak: Eskura dugun informazioaren arabera, Europako erreferentziako herrialdeek haien tributu administrazioetan inbertitutako baliabideek proposatutako adierazlea gaintzen dute kasu gehienetan, gaur egun Nafarroan horretara bideratutako zenbatekoetatik urrun.

Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren efikazia handiagoa etor daiteke, bakarrik, baliabideak handitzearen eta legegintzako eta antolamenduko aldaketen baturatik.

28. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“Zail da zalantzan jartzea iruzur fiskalak herriar gehienei kalte egiten diela...” dioten tokian, “Iruzur fiskalak oso kalte handia egiten dio gizarteari...” esan behar du.

Zioak: Eztabaida ezina da hori. Iruzur fiskalak kalte larria egiten dio gizarteari.

29. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenaren hamaikagarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“..aurreko bi urteetan ondareagatik jasotako” dioten tokian “aurreko lau urteetan ondareagatik jasotako” esan behar du.

Zioak: Zioen azalpena aldatzea, aurkeztutako zuzenketarekiko koherentzia gordetze aldera.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpena

Bat. Ondoko lerrokadaren testua aldatzea:

Proiektuaren testua:

“c) Kautelazko neurriak hartzea Ogasunaren aurkako ustezko delituetan, edo erabiltzeko debekuak; orobat, betebeharrak ezartzea atzerrian diren ondasun eta eskubideen gaineko informazioari buruz.”

Proposatzen den testua:

“c) Kautelazko neurriak hartzea Ogasunaren aurkako ustezko delituetan, bai eta erabiltzeko debekuak ere.”

Bi. Ondoko lerrokadak kentzea:

“Atzerrian diren ondasun eta eskubideez informatzeko berriazko betebeharrak bat ezarri da, eta zehapen araubide zorrotz bat ere bai, betebeharrak hori betetzen ez bada, ondorio garrantzitsuak dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta sozietateen gaineko zerga.”

Honako honi buruzkoa da informatzeko betebeharrak:

a) Atzerrian diren kontuak, kreditu entitateetan irekiak.

b) Atzerrian gordailututa edo kokatuta dauden titulu, aktibo eta baloreak. Orobat, bizi- edo baliatze zintzasun-aseguruak, biziarteko edo aldi baterako errentak, atzerrian diren entitateekin kontratatutak.

c) Atzerrian diren ondasun higiezinak eta bere titulartasuneko higiezinak gaineko eskubideak.”

Zioak: Zioen azalpeneko lerrokada baten testua aldatzeko eta besteak kentzeko arrazoia da kendu egin dela foru lege proiektuan agertzen zen hemezortzigarren xedapen gehigarria, “Atzerrian diren ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharrak.” izenekoa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legean sartu baita.

Hori kontuan hartuta, bidezkoa da zioen azalpena aldatzea, koherentzia mantentze aldera.

31. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari azken bi lerrokada berri gehitzeko zuzenketa:

“Azkenik, foru lege honek jasotzen du, artikulua berri batean (seigarrena) Lan Batzorde Iraunkor bat eratuko dela, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek eta sindikatuek, bazterketarik gabe, osatua, eta haren xedea izanen da arlo horretako jarduketak aztertzea, proposamenak egitea eta iruzur fiskala-

laren aurka borroka egiteko diseinatzen diren jarduketa planen eta neurrien jarraipena egitea.

Halaber, zenbait xedapen gehigarritan jarduketa-konpromiso desberdinak zehazten dira, iruzurra pertsegitzeko eta ezkutuko ekonomiaren adieraz-

lea murrizteko helburuak lortzeko tresnak abian jartze aldera.”

Zioak: Parlamentu-talde honek –onetsiko diren itxaropenean– aurkeztutako zuzenketen edukia sartzea.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter ditzan entitate finantzarioekin dituen harreman operatiboak.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko urtarrilaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrazter ditzan entitate finantzarioekin dituen harreman operatiboak"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere lehentasunak berrazter ditzan finantza entitateekiko harreman operatiboek dagokienez, halako moduan non prezioa, bolumena eta zerbitzua bezalako irizpide

operatibo hutsez gain, hainbat adierazle ere kontuan hartuko baititu, entitateek finantzaketari dagokionez Nafarroan duten egiazko konpromisoa, bai eta norbanakoen egoera dramatikoaren kudeaketa sentsibilitatea ere, neurtzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio txosten bat argitara dezan urtero, zeinetan jasoko baita Nafarroako Gobernuak sortzen duen banku-negozioan finantza entitate bakoitzak duen kuotaren bilakaera, eta bilakaera hori konparatuko baitu entitate bakoitzak Nafarroan emandako kredituaren bolumenaren urteko bilakaerarekin"

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat formula bultza ditzan, errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberritze obra bateko zati diruz lagundua.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko urtarrilaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat formula bultza ditzan, errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberritze obra bateko zati diruz lagundua"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat formula bultza ditzan, errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberritze obra bateko zati diruz lagundua"

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko abenduaren 31 baino lehen araudia egoki dezan gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definizioaren eta sailkapenaren arabera.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2013ko urtarrilaren 18an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko abenduaren 31 baino lehen araudia egoki dezan gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definizioaren eta sailkapenaren arabera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroak Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Gobernuaren araudia Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definiziora eta sailkapenera egoki dezan.

2. Egokitzapen hori 2013ko abenduaren 31 baino lehen buka dezan".

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikorako eraikin berriaren obrak has ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko urtarrilaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikorako eraikin berriaren obrak has ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat azkarren has ditzan Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa hartuko duen eraikin berria eraikitze-ko obrak, halako moduan non erabilgarri egon ahal izanen baita 2013-2014 ikasturtearen hasieran".

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruñeko iparraldean.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2013ko urtarrilaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruñeko iparraldean.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruña iparraldean, eta ziurta dezan 2014/2015 ikasturtearen hasieran ikastetxe hori prest egonen dela eskolatzeko eskari guztiari arian-arian aurre egiteko, DBHko 1. ziklotik hasita.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa.

AKATS ZUZENKETA

Ohartuta akats bat egin zela Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2012ko irailaren 19an eginiko bileran onetsitako erabakian, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita luza dezan langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programa –erabakia 2012ko irailaren 28ko 77. NPAOn argitaratu zen–, akats zuzenketa hau egiten da, testu zuzena osorik argitaratuta. Hona:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gobernua premiatzen du berreskura dezan errenta-gabeziaren kontzeptua, zeina indarrean egon baitzen abuztuaren 24ko 23/2012 Errege Lege-dekretua onetsi arte, eta programa

manten dezan larritasun sozial larri-larriko egoera ekonomiko honek irautean duen bitartean, eta Espainiako Gobernuari adierazten dio PREPARA-langabezia-babesa agortu duten pertsonen lanbide-birprestakuntzako programaren erreformaren aurka dagoela, zeina errege lege dekretu horren bidez egin baita, errenta-gabeziaren definizioari dagokionez.

2. Espainiako Gobernua premiatzen du puntu-altasun zorrotzez egin diezazkien ordainketak onuradunei.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2012ko urtarrilaren 23an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu du. Honakoa du testua:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere partaidetza eta konpromisoa areagotu nahi dituela, Ingurumen Departamentuaren bidez, Pirinioetan Hartz Arrea lehengoratzeko Estrategian eta Programetan, Aragoiko eta Kataluniako autonomia erkidegoekin eta Espainiako eta Frantziako Ingurumen ministerioekin koordinatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du hausnarketa eta elkarrizketa prozesu bat abiaraztea, Ingurumen Departamentuko arduradunen bidez, Erronkariko Ibarreko Batzearrekin eta hartz arreak Nafarroan duen etorkizunarekin lotura zuzena duten sektore sozioekonomikoekin (batik bat, ardi-abeltzaintza eta turismoa), helburu izan den duena jarduketako programa bat adostea, LIFE funtsen 2013ko deialdira aurkezteko.

Erronkariko Ibarreko Batzarrearekiko eta ukitutako sektoreekiko hausnarketa eta elkarrizketa prozesu hori aurrera eramanez ahal izan dadin eta prozesua praktikoa izan dadin, Ingurumen Departamentuari agintzen zaio bi hilabeteko gehieneko epean aurkez diezaien batzorde honi eta Erronkariko Batzarreari 2013ko urtarriletik ekainera bitarte egin beharreko lan bileren eta ekimenen gaineko

proposamen xehakatu bat, LIFE deialdia irailean bukatuko bide baita.

Proposamen horrek ondokoak jasoko ditu gutxienez ere: ibarreko sektore turistikoari eta hartzaren etorkizunari buruzko inkesta bat egitea (plan pastikoloaren esparruan departamentuak abeltzaintza sektorearekin egin duen bezala), eta 4 informazio-saio, bizikidetzaren esperientziak trukatzekoak, arloko sektoreekin (abeltzaintza, turismoa, toki entitateak, ehiza), zeinetan parte hartu beharko baitute hartz arrea duten eta LIFE funtsak jasotzen dituzten beste erkidego batzuetako sektoreen ordezkariak (Kantabriar mendikatea, Biarnoa, Kataluniako Pirinioak).

3. Nafarroako Parlamentuak Ingurumen Departamentua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez diezaion batzorde honi Nafarroan hartz arrea lehengoratzeko plana egokitzeko eta gaurkotzeko proposamena, aipatu estrategiaren eta programaren arabera, beharrezkoa den populazio-inderatzea, estrategia eta programa horietan jasotzen dena, barne.

Nafarroan hartz arrea lehengoratzeko plana Pirinioetan hartz arrea lehengoratzeko strategiaren barruan sartu beharko da, eta abiapuntu eta erreferentzia izanen ditu Ingurumen Departamentuak LIFE 2011 deialdian –Bruselak ez zuen onetsi– eta LIFE 2012an –ez zen azkenean aurkeztu– aurkeztutako jarduketak eta aurrekontuak. LIFE 2013 deialdira aurkeztu beharreko jarduketak Ingurumen Ministerioarekin (Biodibertsitatea Fundazioa), Hartz Arrea Fundazioarekin eta Pirinioetako gainontzeko autonomia erkidegoekin koordinatuko dira, eta Aragoiko autonomia erkidegoak bazkide gisa parte hartzea bilatuko da."

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, aztertzekoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta iruzurraren aurkako borrokarako alternatibak.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean erabakia argitara dadin, lantalde bat sortzekoa, aztertzekoa pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta iruzurraren aurkako borrokarako alternatibak. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsi zuen, 2013ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran. Hona testua:

“1. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean lantalde bat eratzea, aztertze aldera pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta iruzurraren aurkako borrokarako alternatibak.

2. Adieraztea jakinaren gainean dagoela parlamentu-taldeek bozeramaileek lantaldeko kideak eta haien ordezkioak izendatzeari buruz:

UPN	Titularra: Ordezkoa:	Carlos García Adanero Sergio Sayas López
SP	Titularra: Ordezkoa:	Juan José Lizarbe Baztán Samuel Caro Sádaba
NaBai	Titularra: Ordezkoa:	Juan Carlos Longás García Txentxo Jiménez Hervás
Bildu-Nafarroa	Titularra: Ordezkoa:	Maiorga Ramírez Erro Bikendi Barea Aiestaran
PP	Titularra: Ordezkoa:	Ana Beltrán Villalba Enrique Martín De Marcos
Izquierda-Ezkerra	Titularra: Ordezkoa:	José Miguel Nuin Moreno Txema Mauleón Echeverría
Atxiki gabeko parlamentaria	Titularra:	Manu Ayerdi Olaizola”

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea, behar diren ondorioak sortitzan.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera